

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako udalbatzaren 2021eko urriaren 13ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita kirol elkarte, talde eta klubei dirulaguntzak emateko, 2021. urtean edo 20/21 denboraldian jarduerak egin ditzaten

DDBN (Identif.): 589793

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/589793>).

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Onuradunak

1. Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kirol elkarte, talde eta klub publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan dutenak edo jarduera udalerrri horretan egiten dutenak, legez eratuak edo erregistratuak badaude. Era berean, Iruña Okako Elkartearen Udala Erregistroan inskribatuta eta behar bezala eguneratuta egon beharko dute, eta bazkideen, gutxienez, ehuneko 75ek Iruña Okako udalerrian errolatuta egon beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura edo gizarte xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak (IGE).

Salbuespen gisa, Kirol Batzordeak hala proposatzen duenean, Iruña Okatik kanpo dauden erakundeek jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta beren jardueraren zati handi bat udalerrian garatzen badute edo udalerrientzat interesgarri jotzen bada.

2. Bazter utzitakoak. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek:

a) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.

b) Izaeragatik edo xedeagatik Kirol Batzordeari esleitutako jardun eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak.

c) Edozein motatako zerga betebeharrak (tokikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne) egunean ez dituzten erakunde edo elkarteek aurkeztutako eskabideak.

d) Aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen justifikazio memoria entregatu gabe duen jarduera edo programa bati buruzko eskaerak ez dira kontuan hartuko.

e) Ez dira kontuan hartuko beren jarduera publikoetan indarreko legeria betetzen ez duten elkarte, erakunde eta pertsonen proposamenak (jaiotza tokiagatik, arrazagatik, sexuagatik edo erlijioagatik diskriminazioa).

Bigarrena. Xedea

Aurrekontu mugen barruan, kirol elkarte, talde eta klubek 2021. urtean edo 20/21 denboraldian Iruña Okako udalerrian sustatutako jarduerak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, baldin eta jarduera horiek herritarren artean kirola zabaltzeko eta, era horretan, udalerria sustatzeko badira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2021eko urriaren 13ko Erabakiaren bidez onetsitakoak. Udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

1. Honako hau izango da pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzari zenbateko dirulaguntza dagokion zehazteko prozedura:

Lehenengoa: eskabideak balorazio irizpide objektiboen arabera aztertuko dira, eta programa bakoitzari esleitutako puntu guztiak batuko dira.

Bigarrena: kirol arloko dirulaguntzen lerroa bideratutako aurrekontu kreditua parte hartzen duten eskabideen guztizko puntu kopuruarekin zatituko da; horrela, puntu estandarraren balio ekonomikoa lortuko da, eta hori eskatzaile bakoitzak lortutako puntuekin biderkatuta, banakako dirulaguntzaren proposamena aterako da.

Eragiketa horietatik diruz lagundu beharreko jardueraren defizit erreala baino zenbateko handiagoak ateratzen badira, proposatutako dirulaguntza defizit errealerako egokituko da; hau da, eskatzaile bakoitzeko gehieneko zenbatekoak ezin izango du inolaz ere jardueraren defizita gainditu, antolatze beharrezkoak diren gastuak eta aurreikusitako jarduerak sortzen dituen mota guztietako diru sarrerak kontuan hartuta.

Aipatutako parametroak aplikatu ondoren aurrekontuko diru esleipena gainditzen bada, eskabide bakoitzaren ehuneko proportzionalki murriztuko da, esleitutako kopurua egokitu arte.

2. Udalak era berezian izapidetu ahal izango ditu udalerrientzat interes berezikoak diren programa batzuk, eta programa horien kostuak eragiten duen defizitaren ehuneko ehuneko dirulaguntza eman ahal izango du.

3. Dirulaguntzen gutzirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Iruña Okako Udalak aurrekontu orokorrean xede horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko erabiltzen den udal aurrekontuko partidaren gerakinik izanez gero, hura likidatzeko erabakia emango du organo eskudunak, eta horren bidez, beste deialdi bat egin beharrik gabe, geratzen den dirua hainbanatuko da, oinarri hauetan ezartzen diren prozedura, ehuneko eta muga berak aplikatuz.

4. Proiektua finantzatzeko beste erakunde baten laguntzaren bat jaso dela edo bestelako sarreraren bat erabili dela jakinez gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, gastuen eta sarreraren behin betiko likidazioaren emaitzako defizita estaltzen duen zenbatekoa izan dadin.

Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea

Eskakerak eta zazpigarren oinarrian aipatzen den dokumentazioa aurkezteko epea hamar egun balioduneko izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Iruña Oka, 2021eko urriaren 14a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ